



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea

Mancomunidad Comarcal

LIZITAZIO PUBLIKOEN ETENDURA KENTZEA ETA 17/2020 ERREGE LEGE DEKRETUKO BESTE NEURRI BATZUK

2020ko maiatzaren 6ko 123. zenbakidun BOEn maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretua argitaratu zen, kontratazio publikoko prozeduren etendura kentzea erabakitzen duena; horren bidez, baimendu egiten da prozedurekin jarraitzea, baita lizitazio prozedura berriak hasia ere, 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 34. artikulua aldatuta.

Zortzigarren xedapen gehigarria. Sektore publikoko erakundeek alarma egoera indarrean dagoen bitartean egindako kontratazio prozeduren jarraipena eta hasiera.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, COVID-19k eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duenak, hirugarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuan aurreikusitako ondorioetarako, errege lege dekretu hau indarrean jartzen denetik, sektore publikoko erakundeek sustatutako kontratazio prozeduren baldintza eta epeen etendura kentzea erabakitzen da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikulua zehaztutako zentzuan, baldin eta dagozkien izapideak bitarteko elektronikoen bidez egiten badira.

Era berean, aurreko paragrafoan xedatutakoak kontratazio-prozedura berriak hasia ahalbideratuko du, prozedura horien izapideak bitarteko elektronikoen bidez ere egiten badira.

Neurri hori bi kasuetan bidezkoak diren errekurtsio berezietara zabalduko da.

Ondorio horietarako, jakinarazten da berriz ekiten zaiola DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEA tramitatzen ari den kontratazio prozedura guztiak izapidetzeari –epe eta baldintzen etendurak eragin badie–, 2020ko maiatzaren 7tik aurrerako ondorioekin.